«169/1994 DEKRETUA, apirilaren 26koa, Aralar aldea parke naturaltzat jotzen duena».

– 7807 orrialdean, azalpen aldiko zortzigarren lerroaldian, honako hau dioen lekuan:

«Aralar aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Planaren onespenarekin, apirilaren 26ko 169/1994 Dekretuaren bidez eginda,...», beste hau esan behar du:

«Aralar aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Planaren onespenarekin, apirilaren 26ko 168/1994 Dekretuaren bidez eginda,...».

– 7808 orrialdean, 2. atalean, honako hau dioen lekuan:

«...apirilaren 26ko 169/1994 Dekretuaren bidez...», beste hau esan behar du:

«...apirilaren 26ko 168/1994 Dekretuaren bidez...».

«DECRETO 169/1994, de 26 de abril, por el que se declara parque natural el área de Aralar».

– En la página 7807, en la parte expositiva, en el octavo párrafo, donde dice:

«La aprobación del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de Aralar realizada por Decreto 169/1994, de 26 de abril, cumple ...», debe decir:

«La aprobación del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de Aralar realizada por Decreto 168/1994, de 26 de abril, cumple ...».

– En la página 7808, en el artículo 2, donde dice:

«...por Decreto 169/1994, de 26 de abril, ...», debe decir:

« por Decreto 168/1994, de 26 de abril,...».

**2393**

168/1994 DEKRETUA, apirilaren 26koa, Aralar aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onesten duena.

Naturguneen eta Basa-flora eta Basa-faunaren Artapenari buruzko martxoaren 27ko 4/1989 Legeak, 15. atalean, parketzat jo nahi den aldeko natur baliabideen antolamendurako plana egitea exigitzen du.

4/1989 Legearen 6. atalean aurrikusitakoa betetzeko, Aralar aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Planak beharrezko izapideak bete ditu, hots, interesatuei entzunaldia eskaini zaie, informazio publikoaren menpean jarri da, ukituriko gizarte- eta erakunde-interesei kontsultatu zaie, eta Euskal Autonomi Elkarteko Lurralde Antolaketarako Batzordearen irizpenaren menpean jarri da, zein 1994ko martxoaren 11n eman baitzen.

Ondorioz, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1994ko apirilaren 26an egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.*– Naturguneen eta Basa-flora eta Basafaunaren Artapenari buruzko martxoaren 27ko 4/1989 Legearen II. idazpuruan ezarritakoarekin bat etorriz, Aralar aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onestea.

Horretarako, dekretu honekin batera eta I eta II. eraskin gisa, hurrenez hurren, zati arauemailea eta antolamendurako planoa argitaratzen dira.

**2393**

DECRETO 168/1994, de 26 de abril, por el que se aprueba el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de Aralar.

La Ley 4/1989, de 27 de marzo, de Conservación de los Espacios Naturales y de la Flora y Fauna Silvestres, exige en su artículo 15 la elaboración de un Plan de Ordenación de los Recursos Naturales de la zona que se pretende declarar como Parque.

En cumplimiento de los previsto en el artículo 6 de la Ley 4/1989, el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de Aralar ha sido sometido a los trámites de audiencia a los interesados, información pública, consulta de los intereses sociales e institucionales afectados y dictamen de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, emitido con fecha 11 de marzo de 1994.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, y previa deliberación del Consejo de Gobierno en su reunión de 26 de abril de 1994,

DISPONGO:

*Artículo único.*– Aprobar el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de Aralar, de acuerdo con lo establecido en el Título II de la Ley 4/1989, de 27 de marzo, de Conservación de los Espacios Naturales y de la Flora y Fauna Silvestres.

A tal efecto se publican, respectivamente, como Anexo I y II al presente Decreto, la parte normativa y el Plano de Ordenación.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Honako dekretu hau indarrean jarri eta urtebeteko epean, Abaltzisketa, Amezketa, Ataun, Lazkao, Tolosa eta Zaldibia udalerriak ukitzen dituzten eta lurraldea antolatzeko diren tresnak, Aralar aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Planean ezarritako zehaztapenei egokituko zaizkie. Egokitzapen hori gertatu bitartean, planeko zehaztapenak lurraldearen antolamendurako tresna horiei nagusituko zaizkie eta horrela aplikatuko dira.

AZKEN XEDAPENA

Honako dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko apirilak 26.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

I. ERASKINA

ARALAR ALDEKO NATUR BALIABIDEEN ANTOLAMENDURAKO PLANA

AURKIBIDEA

I. IDAZPURUA.– XEDAPEN OROKORRAK

*1. atala.*– Antolamendurako planaren izaera.
*2. atala.*– Bertako biztanleen integrazioa.
*3. atala.*– Planaren ondorioak.
*4. atala.*– Aplikazio-eremua
*5. atala.*– Planaren iraupena eta plana berrikusi eta aldatzeko baldintzak.
*6. atala.*– Bermeak.
*7. atala.*– Kalteordainak eta mugak.
*8. atala.*– Parkearen administrazioa.

II. IDAZPURUA.– ANTOLAMENDUA ETA ARAUTERIA

I. ATALBURUA.– IHARDUERA ETA ERABILEREN ERREGULAZIORAKO ETA BALIABIDEEN BABESERAKO HELBURUAK, JARRAIBIDEAK ETA ARAU OROKORRAK

A SEKZIOA.– IHARDUERA ETA ERABILEREN ERREGULAZIORAKO HELBURUAK, JARRAIBIDEAK ETA ARAU OROKORRAK

*9. atala.*– Iharduera eta erabilerak.
*10. atala.*– Nekazaritza eta abeltzantza erabilerak.
*11. atala.*– Basogintza erabilera.
*12. atala.*– Ehiza eta arrantza erabilerak.
*13. atala.*– Jolas iharduerak.

DISPOSICION TRANSITORIA

En el plazo de un año a partir de la entrada en vigor del presente Decreto, se adaptarán los instrumentos de ordenación territorial que afecten a los municipios de Abaltzisketa, Amezketa, Ataun, Lazkao, Tolosa, y Zaldibia a las determinaciones establecidas en el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de Aralar. Entretanto dicha adaptación no tenga lugar las determinaciones del Plan se aplicarán, en todo caso, prevaleciendo sobre dichos instrumentos de ordenación territorial.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 26 de abril de 1994.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

ANEXO I

PLAN DE ORDENACION DE LOS RECURSOS NATURALES DEL AREA DE ARALAR

INDICE

TITULO I. DISPOSICIONES GENERALES.

*Artículo 1.*– Naturaleza del Plan de Ordenación.
*Artículo 2.*– Integración de la población local.
*Artículo 3.*– Efectos del Plan.
*Artículo 4.*– Ambito de aplicación.
*Artículo 5.*– Vigencia y condicionantes de revisión y modificación.
*Artículo 6.*– Garantías.
*Artículo 7.*– Indemnizaciones y limitaciones.
*Artículo 8.*– Administración del Parque.

TITULO II.– ORDENACION Y NORMATIVA

CAPITULO I.– OBJETIVOS, DIRECTRICES Y NORMAS GENERALES DE REGULACION DE USOS Y ACTIVIDADES Y PARA LA PROTECCION DE LOS RECURSOS

SECCION A.– OBJETIVOS, DIRECTRICES Y NORMAS GENERALES DE REGULACION DE USOS Y ACTIVIDADES

*Artículo 9.*– Usos y actividades.
*Artículo 10.*– Uso agrícola y ganadero.
*Artículo 11.*– Uso forestal.
*Artículo 12.*– Actividades cinegéticas y piscícolas.
*Artículo 13.*– Actividades recreativas.

*14. atala.*– Ikerketa eta zientzi iharduerak.

*15. atala.*– Hezkuntza iharduerak.

*16. atala.*– Eraikuntza eta azpiegitura iharduerak.

*17. atala.*– Bestelako iharduera eta erabilerak.

B. SEKZIOA.– BALIABIDEEN BABESERAKO HELBURUAK, JARRAIBIDEAK ETA ARAUTERIA OROKORRA

*18. atala.*– Lurzoruaren zainketa.

*19. atala.*– Ur-baliabideen zainketa

*20. atala.*– Flora eta faunaren zainketa.

*21. atala.*– Paisaiaren zainketa.

*22. atala.*– Arkeologi eta paleontologi baliabideen zainketa.

*23. atala.*– Espeleologi baliabideen zainketa.

II. ATALBURUA.– ERABILERA ETA IHARDUERAK BARRUTIEN ARABERA ERREGULATZEKO HELBURUAK, JARRAIBIDEAK ETA ARAUAK

*24. atala.*– Erreserba barrutiak.

*25. atala.*– Babes barrutiak.

*26. atala.*– Mendi babesle barrutiak.

*27. atala.*– Abeltzantza barrutiak.

*28. atala.*– Basogintza barrutiak.

*29. atala.*– Landazabal barrutiak.

*30. atala.*– Hirilur eta azpiegitura barrutiak.

III. ATALBURUA.– INGURUGIROKO INPAKTUAREN EBALUAZIOAREN MENPEKO IHARDUERAK

*31. atala.*– Ingurugiroko inpaktuaren ebaluazioaren menpeko iharduerak.

I. IDAZPURUA.– XEDAPEN OROKORRAK

*1. atala.*– Antolamendurako planaren izaera.

Honako plan hau Aralar aldeko natur baliabideen plangintza eta kudeaketarako tresna da, Naturguneen eta Basa-flora eta basa-faunaren Artapenari buruzko 4/1989 Legean aurrikusitakoari dagokionez.

*2. atala.*– Bertako biztanleen integrazioa.

1.– Plan honek inguruko biztanleak integratzeko duen asmoarekin bat etorriz, Parkeak Natur Baliabideen Antolamendu Planari eta Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzaileari buruzko informazio sistema iraunkorra moldatuko du.

2.– Bertako biztanleak Parkearen helburu eta dinamikan integratzea bultzatuko da, bertako sozioekonomi beharrak jasoaz eta informazio bideak ezarriz, Parkearekin izan ditzaketen harremanei buruz nahiz sektorearen arazo orokorrei buruz, nekazaritza ustiategien arduradunei aholkuak emateko balioko dutenak.

*3. atala.*– Planaren ondorioak.

Natur Baliabideen Antolamendurako Planaren behin betiko onartzeak honako ondorio hauek dakartza:

*Artículo 14.*– Actividades científicas y de investigación.

*Artículo 15.*– Actividades educativas.

*Artículo 16.*– Actividades constructivas e infraestructuras.

*Artículo 17.*– Otros usos y actividades.

SECCION B.– OBJETIVOS, DIRECTRICES Y NORMATIVA GENERAL PARA LA PROTECCION DE LOS RECURSOS

*Artículo 18.*– Protección del suelo.

*Artículo 19.*– Protección de los recursos hidrológicos.

*Artículo 20.*– Protección de la Flora y Fauna.

*Artículo 21.*– Proteccion del paisaje.

*Artículo 22.*– Protección de los recursos arqueológicos y paleontológicos.

*Artículo 23.*– Protección de los recursos espeleológicos.

CAPITULO II.– OBJETIVOS, DIRECTRICES Y NORMAS DE REGULACION DE USOS Y ACTIVIDADES POR ZONAS

*Artículo 24.*– Zonas de Reserva.

*Artículo 25.*– Zonas de Protección.

*Artículo 26.*– Zonas de Monte Protector.

*Artículo 27.*– Zonas de Uso Ganadero.

*Artículo 28.*– Zonas de Uso Forestal.

*Artículo 29.*– Zonas de Campiña.

*Artículo 30.*– Zonas Urbanas e Infraestructuras.

CAPITULO III.– ACTIVIDADES SOMETIDAS A EVALUACION DE IMPACTO AMBIENTAL

*Artículo 31.*– Actividades sometidas a Evaluación de Impacto Ambiental.

TITULO I.– DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*– Naturaleza del Plan de Ordenación.

El presente Plan es el instrumento de planificación y gestión de los Recursos Naturales del área de Aralar, a los efectos previstos en la Ley 4/1989 de Conservación de los Espacios Naturales y de la Flora y Fauna Silvestres.

*Artículo 2.*– Integración de la población local.

1.– En consonancia con la vocación de integración de la población local que este Plan se ha propuesto, el Parque habilitará un sistema de información permanente sobre el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales y el Plan Rector de Uso y Gestión.

2.– Se buscará la integración de la población local en los objetivos y dinámica del Parque, asumiendo las necesidades de la socioeconomía local y estableciendo canales de información que permitan asesorar a los responsables de las explotaciones agrarias en los problemas ligados a su relación con el Parque, así como en la problemática general del sector.

*Artículo 3.*– Efectos del Plan.

La aprobación definitiva del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales produce los siguientes efectos:

a) Publizitatea, eta horrekin batera, edozein hiritarrek duen eskubidea dokumentazioa begiratzeko; hori dela eta, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak dokumentazioa agiri legeztatuetan jarriko du jendearen ikusgai, adierazitako lokaletan.

b) Betebeharra, lurralde edo inguru fisikoa antolatzeko beste edozein tresnaren gainean egongo da beti plana, izan ere, haiek ezin izango dute aldatu honek xedatzen duena. Lurralde edo inguru fisikoa antolatzeko diren eta Natur Baliabideen Antolamendurako Planaren aurka doazen tresnek Planaren xedapenetara moldatu beharko dute ezinbestez. Dena dela, eta egokitzaepena lortu bitartean, lehentasuna emango zaio antolamendurako planari, lurraldearen plangintzarako dauden tresnen aurretik.

c) Natur Baliabideen Antolamendurako Plan honetan emandako arau eta jarraibideak adierazgarri izango dira sektorekako beste plan eta egitarau batzuekiko, eta kontuan hartuko dira ordezkotasunez, aurreko atalean ezarritakoaren kaltetan gabe.

*4. atala.*– Aplikazio-eremua.

1.– Baliabideen antolamendurako plan honen aplikazio-eremua, muga hauen barruan sartzen dena da:

– Eskubirantza eta Beasaindik Lizarrustirako GI-3153 errepideak Nafarroako mugarekin duen bidagurutzetik abiatuta, hegoalderantz egiten da Ataungo udal-mugatik zehar, «Agauntza» izeneko H.O.ko 39. zenbakiko mendiko pagadia amaitzen den punturaino.

– 39 zk. duen mendi publikoari dagokion pagadiaren mugatik jarraitzen da, mendi honen kanpoko mugara iritsi arte.

– Ekialderantz jarraitzen du OPko 39 zk. duen mendiaren mugatik Lauzti-errekako aldai nagusiarekin topo egin arte.

– Ondoren, azken aldai hau Ekialde-Mendebalde norabidean mozten duen beste aldai bat hartzen da muga bezala.

– Puntu honetatik 39 zk. duen OPko mendiaren mugatik jarraitzen da, Txitxoloerrekara iristen den arte.

– Txitxoloerrekatik jaisten da GI-3153 errepidera iristen den arte.

– Errepide horretatik jarraitzen da San Martin auzora bidean.

– San Martingo hiri gunean Amondaraina doan zorudun aldaia hartzen da, Ataun eta Zaldibi udalerrien arteko mugara iritsi arte.

– Zaldibiko 84 zk. duen mendi publikoko mugatik jarraitzen da.

– Mendi publiko honen mugak GI-4781 errepidearekin gertuen duen lekutik bertara iritsi arte jaisten da.

– Mugak errepide horretatik jarraitzen du, GI-2133 errepidearekin guruzatzen den arte.

a) Publicidad, que lleva aparejada el derecho de cualquier ciudadano a consultar la documentación, en ejemplar debidamente legalizado, que a tal efecto estará a disposición del público en los locales que el Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco determine.

b) Obligatoriedad, constituyendo un límite para cualesquiera otros instrumentos de ordenación territorial o física, cuyas determinaciones no podrán alterar o modificar sus disposiciones. Los instrumentos de ordenación territorial o física existentes que resulten contradictorias con el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales deberán adaptarse a éste. Entre tanto dicha adaptación no tenga lugar, las determinaciones del Plan de Ordenación se aplicarán prevaleciendo sobre los instrumentos de Planificación Territorial.

c) Las normas y directrices marcadas en el presente Plan de Ordenación de los Recursos Naturales tendrán carácter indicativo respecto de otros planes y programas sectoriales, aplicándose subsidiariamente sus determinaciones, sin perjuicio de lo establecido en el apartado anterior.

*Artículo 4.*– Ambito de aplicación.

1.– El ámbito de aplicación de este plan de ordenación de los recursos abarca el recinto contenido en los límites siguientes:

– En sentido dextrógiro y tomando como inicio el cruce de la carretera GI-3153 de Beasain a Lizarrusti con el límite provincial se inicia en dirección sur por el límite municipal de Ataun hasta el punto donde termina el hayedo del Monte de U.P. n.º 39 «Agauntza».

– Continúa por el límite del hayedo perteneciente al Monte Público n.º 39 hasta volver al límite exterior del citado Monte.

– Continúa en dirección este por el límite del Monte de U.P. n.º 39 hasta el punto de corte con la pista principal de Lauzti-erreka.

– A continuación se toma como límite otra pista que corta a esta última en dirección Este-Oeste.

– Desde este punto continúa por el límite del Monte de U.P. n.º 39 hasta el punto de corte con el arroyo de Txitxoloerreka.

– Desciende por el arroyo de Txitxoloerreka hasta el punto de corte con la carretera GI-3153.

– Continúa por la citada carretera en dirección a San Martin.

– En el casco urbano de San Martin se toma la pista asfaltada que se dirige hacia Amondarain hasta el límite municipal de Ataun con Zaldibia

– Continúa por el límite del monte público n.º 84 de Zaldibia.

– En el punto más próximo del límite del monte público con la carretera GI-4781 se desciende hasta la misma.

– Continúa el límite por la citada carretera hasta la intersección de ésta con la carretera GI-2133.

– Puntu honetatik errepide berritik jarraitzen da Larraitzeraino.

– Larraiztik GI-3670 errepidetik jarraitzen da Abaltzisketara, Amezketako errepidearekin dagoen bidegurutzeraino.

– Errepide honetatik jaisten da herriguneraino.

– Amezketatik goruntz hartzen da Tours-eko San Martinera doan zorudun errepidetik.

– Bide honetatik jarraitzen da Larrondorantz, ehundaka metro batzuk igaro ondoren aldaiera aldatuz, 36 zk. duen Mendi Publikora iristen den arte.

– Mendi honen mugatik jarraitzen da ekialderantz herrilurren mugaraino.

– Herrilurren mugatik jaisten da, Bedaiora doan bideraino iritsi arte.

– Bedaioko hirigunetik, GI-3715 errepidetik jarraitzen da Gurbille Haundiko bidearen bidegurutzera arte.

– Azken bide hau hartuz, mikeleteen lehengo etxerantz jarraitzen da, Nafarroako mugaraino.

– Puntu honetatik Nafarroako probintzi mugatik jarraitzen da, muga honek GI-3153 mozten duen arte, izan dugun abiapuntua hain zuzen.

2.– Gorago zehazturiko lur-eremua parke naturaltzat hartuko da, horri dagokionez indarrean dagoen legerian aurrikusita dagoenarekin bat etorriz.

*5. atala.*– Planaren iraupena eta plana berrikusi eta aldatzeko baldintzak.

Natur Baliabideen Antolamendurako Plana, bada, ondorengo balizko hauetarikoren bat ematen denean berrikusi beharko da:

a) Irizpide eta helburu orokorrak aldatzean.

b) Lurralde-eremua aldatzean.

c) Babesturiko balioen zaindu beharrak areagotzen direnean.

Edozein pertsona edo erakunde publiko zein pribatuk, idazketaren arduradunari prozedura egokia has dezan eskatu diezaioke, aldaketarako edo berrikusketarako beharra eta aukera xurituz gero.

Edozein kasutan, Planaren berrikusteak edo aldaketak lehendabiziko onarpenaren ihardunbide berdina jarraitu beharko du.

*6. atala.*– Bermeak.

1.– Aralar aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Planak, babes-helburuen zioz ezar daitezkeen mugen kaltetan jo gabe, jarraian adieraziko direnekin bateragarria izateaz gain, hondoko hauek bermatuko ditu:

a) Autonomiako Administrazioaren, Estatuko Administrazioaren, lurralde historikoetako foru administra-

– Desde este punto continúa por la citada carretera hasta Larraitz.

– A partir de este punto se continúa hasta Abaltzisketa por la carretera GI-3670 hasta la intersección de esta con la carretera a Amezketa.

– Continúa por esta carretera hasta la citada localidad.

– Desde Amezketa asciende por el camino asfaltado que se dirige hacia San Martin de Tours.

– Continúa por este camino en dirección hacia Larrondo, pasando tras unos cientos de metros a afirmado, hasta el punto de cruce entre el monte público n.º 36.

– Continúa por el límite del citado monte hacia el este hasta el límite municipal.

– Desde el límite municipal desciende por éste hasta el camino que conduce a Bedaio.

– Desde el citado núcleo, continúa por la carretera GI-3715 hasta el cruce con el camino a Gurbille Haundia.

– Continúa por este camino en dirección a la antigua casa de mikeletes, hasta llegar al límite provincial con Navarra.

– Desde este punto se continúa por el límite provincial con Navarra hasta el cruce de éste con la carretera GI-3153, punto de inicio de la descripción.

2.– El ámbito geográfico anteriormente definido será objeto de declaración como Parque Natural, de conformidad con lo previsto a tal efecto por la legislación vigente.

*Artículo 5.*– Vigencia y condicionantes de revisión y modificación.

El Plan de Ordenación de los Recursos Naturales deberá ser modificado en alguno de los siguientes supuestos:

a) Alteración de los criterios y objetivos generales.

b) Variación del ámbito territorial.

c) Mayores exigencias en cuanto a la preservación de los valores protegidos.

Cualquier persona o entidad pública o privada podrá solicitar al órgano redactor la iniciación del procedimiento que corresponda, una vez justificada la necesidad y oportunidad de revisión o modificación.

En cualquier caso, la revisión o modificación del Plan deberá someterse al mismo procedimiento que para su primera aprobación.

*Artículo 6.*– Garantías.

1.– El Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de Aralar, sin perjuicio de las limitaciones que se imponen en función de sus objetivos de protección, será compatible y garantiza:

a) El ejercicio de las atribuciones de la Administración Autonómica, la Administración del Estado, de las

zioen eta udal korporazioen eskurantzen egikaritza, eskudunak diren gaietan.

b) Landa-iharduerak eta baliabideen ustiapen egokia.

c) Auzo-erabileren eta haien kudeaketa organoen existentzia eta funtzionamendua, parkearen kultur eta ekonomi ondarearen parte gisa (egur eta bazkarako auzo-eskubideak, mendiak eta abar).

d) Administrazio eskudunen ahalmenak, desjabetzapenari dagokionez, eta eroslehentasun eta atzera eskuratzeko eskubideen egikaritza, parkearen barruko lurren inter vivos kostubidezko eskualdaketa guztietan; edonola ere, desjabetzapenak, kasua denean, behar-beharrezkoak diren ondasunak bakarrik ukituko ditu. Horretarako, ondasun horiek zehaztuko dira alegazio epealdiaren menpean egongo den zerrenda batean. Ondasunak atzemateko beharrizanari buruzko akordioa lortutakoan bakarrik, emango zaio hasiera desjabetzapen espedienteari.

Jabeek edo ukituriko ondasun zein eskubideen beste titular batzuek, herri-administrazioekin aplikatu behar den arauteria bereziaren ondoriozko gaitz-kalteengatiko beste kalteordainik edo konpentsaziorik hitzartzen ez dutenean bakarrik erabiliko dira desjabetzapen ahalmenak.

2.– Lur publiko zein pribatuan burutu nahi diren iharduketa guztietarako, beharrezkoa izango da jabe edo eskubidearen titularraren baimena, indarrean dagoen legeriak emandako ahalmenak egikaritzeko Administrazioak duen aukeraren kaltetan jo gabe.

*7. atala.*– Kalteordainak eta mugak.

Legebidezko ondare eskubide zein interesak edo jabetza pribatua kendu edo bereziki mugatzeagatik gertaturiko errenta galera izango da kalteordainaren xede, Parkearen eremuan Natur Baliabideen Antolamendurako Planak eta Erabilera eta Kudeaketarako Planak ezarritako murrizketa edo mugak indarrean jartzeko helburuaz suertatzen denean.

*8. atala.*– Parkearen administrazioa.

1.– Aralarko Parke Naturalaren administrazioa Gipuzkoako Foru Diputazioari dagokio.

2.– Kontrol, kontsulta eta lankidetza organo izateko, Patronatu bat sortu beharko da; Patronatuan, gutxienez, honako hauek egon beharko dute ordezkaturik:

a) Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Diputazioa.

b) Udalak eta Enirio-Aralarko Mankomunitatea.

c) Jabe partikularrak.

d) Sektorekako elkarteak.

e) Bestelako elkarteak.

3.– Parke Naturalaren kudeaketa eta administrazioaren arduradun gisa, Foru Aldundiak zuzendari-artatzaile bat izendatuko du.

4.– Parkearen kudeaketarako organo arduradunak antolamendurako plan honetan eta Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzailean biltzen diren helburu,

Administraciones Forales de los Territorios Históricos y de las corporaciones locales en las materias en las que sectorialmente sean competentes.

b) El ejercicio de las actividades rurales y el ordenado aprovechamiento de sus recursos.

c) La existencia y funcionamiento de usos vecinales, así como de sus órganos de gestión, como pertenecientes al patrimonio cultural económico del Parque (comunidades de leñas y pastos, montes, etc,).

d) Las facultades de las Administraciones competentes, a efectos expropiatorios, así como el ejercicio de los derechos de tanteo y retracto en las transmisiones onerosas intervivos de terrenos situados en el interior del Parque, si bien en el caso de expropiación, ésta deberá realizarse sobre los bienes estrictamente indispensables. Para este fin, se detallarán dichos bienes en una relación sometida a período de alegaciones. Sólo una vez llegado al acuerdo de necesidad de ocupación se iniciará el expediente expropiatorio.

Las facultades expropiatorias sólo podrán ejercitarse en el caso de que los propietarios, u otros titulares de los bienes y derechos afectados, no convengan con las administraciones públicas otra forma de indemnización o compensación de los daños y perjuicios derivados de la reglamentación especial que sea de aplicación.

2.– Toda actuación que se realice en terreno, público o privado, requerirá del consentimiento expreso del propietario o del titular del derecho, sin perjuicio del ejercicio por la Administración de las facultades que le concede la Legislación vigente.

*Artículo 7.*– Indemnización y limitaciones

Será objeto de indemnización, la pérdida de renta provocada por la privación o limitación singular de la propiedad privada o de los derechos e intereses patrimoniales legítimos, con el fin de poner en vigor las restricciones o limitaciones impuestas en el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales y en el Plan Rector de Uso y Gestión en el ámbito del Parque.

*Artículo 8.*– Administración del Parque.

1.– La Administración del Parque Natural de Aralar corresponde a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2.– Como órgano de control, consulta y colaboración se deberá crear un Patronato, en el cual y como mínimo deberán estar representados:

a) Gobierno Vasco, Diputación de Gipuzkoa.

b) Ayuntamientos y Mancomunidad de Enirio-Aralar.

c) Propietarios particulares.

d) Agrupaciones Sectoriales.

e) Otras agrupaciones.

3.– Como responsable de la gestión y administración del Parque Natural la Diputación Foral nombrará un Director Conservador.

4.– El Organo Responsable de la Gestión del Parque, velará por el cumplimiento de los objetivos, directrices y normas contenidas en este Plan de Ordenación

jarraibide eta arauak bete daitezen jagongo du, legezkotasun printzipioaren menpean ihardungo du, administrazio iharduera, oro har, eraentzen duten arau eta printzipioetara, eta plan horiei buruz edota plan horiek osatu eta garatzeko gainerako tresnetan ezartzen diren arau eta jarraibideetara makurturik. Ihardutean, edonola ere, zioak agertarazi beharko ditu.

Parkearekin zerikusia duten administrazio izapideetarako leihatila bakarreko sistema ezartzeko behar diren prozesuak definituko ditu.

II. IDAZPURUA.– ANTOLAMENDUA ETA ARAUTERIA

I. ATALBURUA.– IHARDUERA ETA ERABILEREN ERREGULAZIORAKO ETA BALIABIDEEN BABESERAKO HELBURUAK, JARRAIBIDEAK ETA ARAU OROKORRAK

A SEKZIOA.– IHARDUERA ETA ERABILEREN ERREGULAZIORAKO HELBURUAK, JARRAIBIDEAK ETA ARAU OROKORRAK

9. atala.– Iharduera eta erabilerak.

A.– ARAUAK.

Barruti bakoitzarentzat ezartzen den arauteria gorabehera eta hirilur gisa definitzen diren barrutietan salbu, debekaturik dago, izaera orokorraz, Parkearen barruan jarraian adieraziko diren erabilera eta/edo ihardunerak gauzatzea, horretarako Iharduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala (C.N.A.E.) erreferentziatzat hartuz:

1. atalburua.– Energia eta Ura, 151 (energia elektrikoaren ekoizpen, garraio eta banaketa) eta 160. (uraren hartze, arazketa eta banaketa) idazatiak salbu.

2. atalburua.– Mineral ez-energetiko eta eratorritako produktuen erauzketa eta eraldakuntza. Industria kimikoa. Debeku horretatik salbuetsita geratuko dira Ataungo udal mugarteko Arrateta izeneko harrobia eta hurbileko ingurugiroa berreskuratzeko izan daitekeen planak eragindako lanak.

3. atalburua.– Metalen eraldaketarako industriak. Doitasuneko mekanika.

4. atalburua.– Manufakturako beste industria batzuk, honako idazati hauek:

434: Zuntz gogorren eta beraien nahasturen industria.

437: Alfonbra, tapiz eta ehun inpregnatuen fabrikazioa.

441: Larru eta larru iletsuen zurratze eta leunketa.

471: Paper orearen fabrikazioa.

472: Paper eta kartoiaren fabrikazioa.

473: Paper eta kartoiaren eraldaketa.

481: Kautxuaren eraldaketa.

482: Gai plastikoen eraldaketa.

*10. atala.*– Nekazaritza eta abeltzantza erabilerak.

y en el Plan Rector de Uso y Gestión, actuando bajo el principio de legalidad con sometimiento a las normas y principios que rigen con carácter general la actividad administrativa, y a las normas y directrices que se establezcan en los sobredichos planes y en cualesquiera otros instrumentos de complemento y desarrollo de los mismos. Sus actuaciones serán, en todo caso, motivadas.

Definirá los procesos necesarios para la instalación de un sistema de ventanilla única para los trámites administrativos relacionados con el Parque

TITULO II.– ORDENACION Y NORMATIVA

CAPITULO I. OBJETIVOS, DIRECTRICES Y NORMAS GENERALES DE REGULACION DE USOS Y ACTIVIDADES Y PARA LA PROTECCION DE LOS RECURSOS

SECCION A.– OBJETIVOS, DIRECTRICES Y NORMAS GENERALES DE REGULACION DE USOS Y ACTIVIDADES

*Artículo 9.*– Usos y actividades.

A.– NORMAS.

Con independencia de la normativa por zonas y con excepción de las zonas definidas como urbanas, queda prohibido, con carácter general, la realización dentro del Parque, de los siguientes usos y/o actividades, tomando como referencia la Clasificación Nacional de Actividades Económicas (C.N.A.E.):

Capítulo 1.– Energía y Agua, a excepción de los apartados 151 (Producción, transporte y distribución de energía eléctrica) y 160 (Captación, depuración y distribución de agua ).

Capítulo 2.– Extracción y transformación de minerales no energéticos y productos derivados. Industria Química. Se exceptúa de esta prohibición, los trabajos de un posible plan de restauración medio-ambiental de la denominada cantera de Arrateta y su entorno, en el término municipal de Ataun.

Capítulo 3.– Industrias transformadoras de los metales. Mecánica de precisión.

Capítulo 4.– Otras industrias manufactureras, los apartados siguientes:

434: Industria de las fibras duras y sus mezclas.

437: Fabricación de alfombras, tapices y tejidos impregnados.

441: Curtición y acabado de cueros y pieles.

471: Fabricación de pasta papelera.

472: Fabricación de papel y cartón.

473: Transformación de papel y cartón.

481: Transformación del caucho.

482: Transformación de materias plásticas.

*Artículo 10.*– Uso agrícola y ganadero.

A.– HELBURUAK.

1.– Aralarko Parke Naturalean burutzen diren landa-iharduerak eta artzantzarako guneak mantendu eta garatzeko behar diren guneak sustatzea, modu horretara kultur eta natur balioak artatzen lagunduz.

2.– Egungo ekoizpen sistemak hobetu, errentagarritasun ekonomiko handiagoa eta kalitate hobeko produktuak lortzearren.

3.– Larre baliabideen kalitatearen gehiagotzea eta aziendaren osasun eta ekoizpen baldintzen hobetzea.

4.– Artzainen bizimoduen baldintzak hobetzea.

B.– JARRAIBIDEAK.

1.– Parkearen kudeaketarako organo arduradunak nekazaritza eta abeltzantza erabilerak manten daitezen jagongo du. Erlazaintza ere abeltzantzaren barruan dagoela ulertuko da.

2.– Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzaileak Aralarko abeltzantzaren antolamendua jorratuko du.

3.– Abeltzantza iharduerak ematen direneko udalerriek, iharduera horiek arautzeko beharrezkotzat jotzen dituzten ordenantza guztiak aterako dituzte, Natur Baliabideen Antolamendurako Planaren eta hura garatzen duen Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzailearen zehaztapenekin bat etorriz.

4.– OPko 82. mendiko larre-guneetako abeltzantzaren antolamenduan Enirio-Aralarko Mankomunitateak duen ardura babestu eta/edo indartuko da.

C.– ARAUAK.

1.– Parkeko eremu publikoetako larreak, dagokien erroldan inskribaturik dauden aziendek bakarrik erabil ditzakete.

2.– Larre berriak, %30etik gorako aldapa duten lurretan ezingo dira sortu. Kasu bakanetan, lurren ezaugarrien arabera, aurretikako txosten ziodun baten ondoren eta parkea kudeatzeko ardura duen erakundeak berariazko baimena emandakoan, baimendu ahal izango dira.

3.– Larre berrietan, beraien azaleraren %5 gutxienez bertako ezpezieen basotxoak eratzeko utziko da, edo bestela, bertako espezieen landaketa bat egin beharko da, ha bakoitzeko 25 oineko gutxienezko dentsitatea emanik. Zuhaitzen kokapena inguru hauskorren babeserako egingo da lehenik eta, horrelakorik ez badago, larreak hobetzea eta azienda babestea izango dira irizpideak.

4.– Abeltzantzarako egiten diren instalazioek, aipatzen diren kasu hauetan parkea kudeatzeko ardura duen erakundearen baimena beharko dute: 40 buru baino gehiago dituzten behi ikuiluak, txerrienak 30 ugaltzaile, ziklo itxian, edo gizentzeko 10 buru baino gehiago dituztenean eta 1.000 leku baino gehiago dituzten oilo eta untxien ustialekuak.

*11. atala.*– Basogintza erabilera.

A.– OBJETIVOS.

1.– Promocionar las medidas necesarias para el mantenimiento y desarrollo de las actividades rurales que se realizan en el Parque Natural de Aralar, así como los lugares de pastoreo, colaborando de este modo en la conservación de los valores culturales y naturales.

2.– Mejorar los actuales sistemas productivos para lograr una mayor rentabilidad económica y productos de mayor calidad.

3.– Aumentar la calidad de los recursos pascícolas y mejora de las condiciones sanitarias y productivas del ganado.

4.– Mejorar las condiciones de vida de los pastores.

B.– DIRECTRICES.

1.– El Organo Responsable de la Gestión del Parque velará por el mantenimiento del uso agrícola y ganadero. Dentro de la ganadería se considera también la apicultura.

2.– El Plan Rector de Uso y Gestión abordará la ordenación ganadera de Aralar.

3.– Los Municipios en cuyos terrenos se realice actividad ganadera dictarán cuántas ordenanzas estimen necesarias para regular dicha actividad, de conformidad con las determinaciones del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales y del Plan Rector de Uso y Gestión que lo desarrollen.

4.– Se conservará y/o potenciará el papel de la Mancomunidad de Enirio-Aralar en la ordenación ganadera de la zona de pastos del M.U.P. n.º 82.

C.– NORMAS.

1.– Sólo utilizarán los pastos situados en terrenos públicos del Parque aquellos ganados que estén inscritos en los correspondientes registros.

2.– Los nuevos pastizales no se podrán crear sobre terrenos con pendientes superiores al 30%. Excepcionalmente, en función de las características del terreno, previo informe motivado y autorización expresa del Organo Responsable de la Gestión del Parque, podrán autorizarse.

3.– En los nuevos pastizales se deberá destinar un mínimo del 5% de su superficie a creación de bosquetes de especies autoctonas, o bien se deberá realizar una plantación de especies autóctonas con densidades mínimas de 25 pies/héctarea. La ubicación del arbolado se realizará prioritariamente con fines de protección de zonas frágiles, y de no existir éstas, con criterios de mejora del pastizal y protección del ganado

4.– Las instalaciones de ganado vacuno con una capacidad superior a 40 plazas, de porcino con capacidad superior a 30 plazas de reproductores en ciclo cerrado o cebaderos de más de 10 plazas, avícolas o cunículas con capacidad superior a 1.000 plazas requerirán autorización del Organo Responsable de la Gestión del Parque.

*Artículo 11.*– Uso forestal.

A.– HELBURUAK.

1.– Zuhaitz sailetatik atera daitezkeen mota guztietako onurak kontutan izanik, Aralarren zuhaitzez estalita egun dagoen azalera mantentzea.

2.– Ahal den neurrian, bertako espezieetako zuhaitzek estaltzen duten azalera gehitu, parkeko interes ekologiko eta sozialak bateratuz.

3.– Hazkuntza azkarra eta ertaina duten espezieen birbasoketak, ekoizpen ahalmen nahikoa izaki inpaktu aipagarririk eragingo ez duten inguruetara mugatu eta, hauekin batera, lurzoruak egokitzearren eta hobetzearren beharrezkoak gertatzen direnetara edo espezie klimazikoetarako bidean tarteko maila bezala erabiltzen direnetara.

4.– Parkeko zuhaitz sailek osasun eta hazkuntza egoera onean iraun dezaten zaintzea.

5.– Batez ere inguru naturalaren babespenera zuzenduta egongo den kudeaketa egitea.

B.– JARRAIBIDEAK.

1.– Kudeaketarako plan teknikoak egitea bultzatuko da, mendi publikoetan nahiz jabego pribatua dutenetan.

2.– Baso jabeen elkartzea indartuko da.

3.– Baso bideen kopurua eta bide horiek eraikitzeko era, basogintza lanak egiteko eta zaintzeko benetako beharrizanetara egokituko dira.

4.– Zuhaitzak ebakitzeko baimenak ematerakoan, teknika, ekonomia, paisaia eta ekologiari buruzko irizpideak erabiliko dira.

5.– Baso sailen mugen taiuketan, hala espezie ezberdinen erabileran nola ebakieretan eta beste ekintzetan, halabeharrez ez bada, ez dira mendietan lerro zuzenak erabiliko.

6.– Bertako landaretza errespetatuko da, batez ere ibar eta urbazterretan.

7.– Ingurunean inpaktu arina duten teknikak bultzatuko dira eta, era berean, ebakiera hondarrak mekanikoki desegiteko erabil daitekeen makineria.

8.– Espezien nahasketa lagunduko da birbasoketa guztietan.

9.– Zuhaitzen birsorketaren kalterako ez denean, zuhaitz sailak baso eta larre gisa ustia daitezen bultzatuko da.

10.– Hostozabalen baso-beherak hostozabalen baso garai bihurtzera jo beharko da.

11.– Erretzeko arrisku handia duen landaretzak estaltzen dituen esparru zabaletan, erregaitzak diren landare-erakuntzak sustatuko dira.

12.– Antolatutako mendietan antolaketaren irizpideak jarraituko dira. Antolaketa irizpideen berrikusteak edo etorkizunean egin daitezkeen antolaketak, Mendi Zerbitzu, titular eta parkeko zuzendaritzaren artean adostu beharko dira.

A.– OBJETIVOS.

1.– Mantener la actual superficie arbolada de Aralar, dados los beneficios de todo tipo que de las masas arboladas pueden obtenerse.

2.– Aumentar, en la manera de lo posible, la superficie arbolada ocupada por especies autóctonas, armonizando los intereses ecológicos y sociales del Parque.

3.– Limitar las repoblaciones de especies introducidas de crecimiento rápido y medio a las zonas de suficiente capacidad de producción y en las que no produzcan impactos relevantes, y en aquéllas en las que sean necesarias para el acondicionamiento y mejora de suelos, o como escalón intermedio hacia especies climácicas.

4.– Velar por el buen estado vegetativo y fitosanitario de las masas arboladas del Parque.

5.– Realizar una gestión dedicada primordialmente a la conservación del medio natural.

B.– DIRECTRICES.

1.– Se fomentará la realización de Planes Técnicos de Gestión, tanto en los montes públicos como en los pertenecientes a particulares.

2.– Se promocionará la agrupación de propietarios forestales.

3.– Se procederá a la adecuación del número y modo de construcción de las vías forestales a las necesidades reales de vigilancia y realización de trabajos forestales.

4.– Los permisos de corta se concederán teniendo en cuenta criterios técnicos, económicos, paisajísticos y ecológicos.

5.– Se evitará en lo posible el establecimiento de líneas rectas como límite de las masas forestales, tanto en el empleo de distintas especies como en las cortas y otras actividades.

6.– Se respetará la vegetación autóctona, especialmente en vaguadas y riberas.

7.– Se favorecerá el empleo de técnicas poco impactantes sobre el medio, así como de maquinaria destinada a la destrucción mecánica de restos de corta.

8.– Se primará la mezcla de especies en toda repoblación forestal.

9.– Se potenciará el aprovechamiento silvopastoral de las masas arboladas, siempre que ello no suponga daños para la regeneración arbórea.

10.– Se deberá tender hacia la transformación de los montes bajos de frondosas a montes altos de frondosas.

11.– Se fomentará la existencia de formaciones vegetales de baja combustibilidad intercaladas en las grandes áreas ocupadas por vegetación de alto riesgo.

12.– En los montes ordenados se seguirán los criterios de su ordenación. La revisión de los criterios de ordenación o la realización de futuras ordenaciones se consensuará entre el Servicio de Montes, el titular y la dirección del Parque.

C.– ARAUAK.

1.– Birbasoketak egiteko, lurra prestatzeko edo garbiketetarako makineriaren erabilera araututa geratzen da. Horretarako, honako arau hauek jarraituko dira:

1.1.– %50etik gorako maldetan autopropultsaturiko makineriarik ezingo da erabili.

1.2.– %30etik eta %50era bitarteko maldetan, zuloak egiteko, luberritzeko edo airean igurtzitzeko erabili daiteke makineria.

1.3.– %30etik beherako maldetan makineria erabiltzea baimentzen da, hala ere lurzoruarentzat eta paisaiarentzat inpakturik ekartzen duten basogintza lanak ez dira onartuko, hala nola, goldekin eginiko lurrazpi lanak, aterrazamenduak edo ildokatzeak.

1.4.– Esku-makineriaren erabilera edozein malda motatan baimenduko da.

1.5.– %50etik beherako maldetan, eskuz egiten diren lanek lehentasuna izango dute.

2.– Parkearen kudeaketarako organo arduradunaren berariazko baimenik gabe, edozein zuhaitz botatzea debekatzen da.

3.– Erabateko ebaketek, zati batean 5 ha baino gehiagoko azalera hartzen dutenean, parkea kudeatzeko ardura duen erakundearen baimen berezia beharko dute, ingurunean duen eragina eragileak xuritu ondoren.

4.– Bertako espezieek gehiengoa duten mendien ustiapenean, parkea kudeatzeko ardura duen erakundeak, sailen egonkortasuna bermatzearren, behar diren mugak jarriko ditu.

4.1.– Erabateko ebaketak aparteko kasuetan bakarrik baimenduko dira, eta kasu horietan, jabeak, bi urteko epearen barruan lehen zeuden espezieekin berriro ere birbasotu beharra izango du; zailtasun teknikoak daudenean, flora elkarte bereko beste zuhaitz espezieren bat erabili ahal izango du birbasoketarako.

4.2.– Erabilera aldaketak, aparteko kasuetan bakarrik baimenduko dira.

5.– Parkea kudeatzeko ardura duen erakundeak mugak jarri ahal izango ditu, ebakitzeko eta ateratzeko metodoei edo urtaroari dagokienez. Ingurunearentzat inpaktu berezia duten ustiapenak sumatzen direnean, parkearen helburuekin bat datozen moduak erabiltzen diren arte, parkea kudeatzeko ardura duen organoak ustiapena gerarazteko ahalmena izango du.

6.– Birbasoketa guztiek parkearen kudeaketarako organo arduradunaren baimena izan beharko dute, horretarako, barruti bakoitzeko araudia betetzeaz gain, inguruarekiko egokitzapen-irizpide teknikoak erabiliko direlarik.

7.– Koniferoek osaturiko zuhaiztietan, Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzaileak bertako hostozabalez osaturiko sailak, nahiz linealki nahiz basotxoetan, lortzeko mekanismoak jarriko ditu martxan. Ekologiaren

C.– NORMAS.

1.– Queda regulado el empleo de maquinaria para realizar repoblaciones forestales, preparación del terreno o limpiezas. Para ello se seguirán las siguientes normas:

1.1.– En pendientes mayores del 50% no podrá utilizarse clase alguna de maquinaria autopropulsada.

1.2.– En pendientes comprendidas entre el 30 y el 50% podrá utilizarse maquinaria para realizar hoyos, desbroces y rozas al aire.

1.3.– En pendientes menores del 30% se permite el empleo de maquinaria, aunque no se permite la realización de trabajos forestales impactantes para el suelo y para el paisaje, como subsolados con vertedera, aterrazados o acaballonados.

1.4.– Se permite el empleo de maquinaria manual en cualquier tipo de pendiente.

1.5.– Se primarán las labores efectuadas manualmente en pendientes inferiores al 50%.

2.– Se prohíbe la corta de cualquier árbol sin autorización expresa del Organo Responsable de la Gestión del Parque.

3.– Las cortas a hecho, en superficies continuas superiores a 5 ha requerirán autorización especial del Organo Responsable de la Gestión del Parque, previa justificación por parte del promotor de la incidencia ambiental de la corta.

4.– En el aprovechamiento de los montes poblados predominantemente por especies autóctonas, el Organo Responsable de la Gestión del Parque pondrá las limitaciones oportunas a fin de garantizar la persistencia de las masas.

4.1.– Sólo se autorizarán cortas a hecho en casos excepcionales, y en ellos se obliga al propietario a repoblar el monte en un plazo de dos años con las especies que existieran con anterioridad, pudiéndose emplear, en caso de dificultades técnicas, otras especies arbóreas del cortejo florístico.

4.2.– Sólo excepcionalmente se autorizará el cambio de uso.

5.– El Organo Responsable de la Gestión del Parque podrá poner limitaciones a los métodos de corta y extracción a aplicar y época. En el caso de que sean detectados aprovechamientos especialmente impactantes para el medio, el Organo Responsable de la Gestión del Parque podrá paralizar el aprovechamiento hasta que el mismo se realice por los medios adecuados a los objetivos del Parque.

6.– Toda repoblación deberá contar con la aprobación del Organo Responsable de la Gestión del Parque, siguiendo para ello criterios técnicos de adecuación al lugar, además de cumplir la Normativa de cada zona.

7.– El Plan Rector de Uso y Gestión arbitrará los mecanismos necesarios para conseguir en las masas forestales de coníferas la existencia de masas lineales o bosquetes de frondosas autóctonas que garanticen la

zein paisaiaren ikuspegitik behar den dibertsitatea zaintzeko edo fauna basatiaren babesleku izan eta suaren aurkako berezko oztopo gerta daitezen egingo dira.

Arauteriaren diseinua egiterakoan, orokorki, zati hauek baso sailaren %5a baino gehiagoko azalerarik ukitu ez dezaten saiatuko da, bereizgarri fisiko saihestezinak direnetan salbu, hala nola ubideen mugakideak diren lursailen kasuan.

8.– Lurrean, ubideetan, azpiegitura edo bideetan edozein motatako baso ustiapenak direla eta, egiten diren kalteak, baso ustiapenaren egileak ongitu beharko ditu, horretarako gehienezko epea ustiapena bukatzen denetik 6 hilabetekoa izango delarik. Parkea kudeatzeko ardura duen organoak ustiapenaren emakida-prozeduran fidantza bat ezarriko du, aipatutako ongitze horren bermagarri izan dadin.

*12. atala.*– Ehiza eta arrantza erabilerak.

A.– HELBURUAK.

1.– Aralarko Parke Naturalean egiten den ehiza iharduerak honako helburu hauek bete beharko ditu:

1.1.– Fauna orokorrean babestea, espezieen osasun eta genetika egoera zainduz.

1.2.– Biztanleriak kontrolatzea, biztanleria horien eta bizi direneko natur eta giza ingurunearen arteko oreka lortzeko.

1.3.– Inguru natural babestua, jolas eta ekonomi baliabideez hornitzea.

2.– Arrantzaren arauketa, Aralarko Parke Naturalean ondorengo helburuek gidatuko dute:

2.1.– Uren kalitatea eta ibaietako ubide eta urbazterren egitura babestea.

2.2.– Uretako fauna, bere aniztasuna eta edukin genetikoa babestea.

2.3.– Inguru natural babestua jolas aukerez hornitzea.

B.– JARRAIBIDEAK.

1.– Parkearen lurralde osoa ehizaren kudeaketarako unitate bat da. Kudeaketaz arduratuko den organoak ehiza-espezieen aprobetxamendu eta artapen egokia burutu dadin jagongo du, lurraren titularrekin eta ehizarako eskubideen adjudikatariekin ados jarrita.

2.– Parkearen kudeaketaz arduratuko den organoak, ekintza hau antolatzeko plan teknikoa egingo du, ehizak Parkean garatzen diren beste ekintza guztietan, jolas ekintzetan batez ere, sor ditzaken interferentziak gutxitzearren beharrezkoak diren neurriak proposatuz.

2.1.– Plan horrek ondoko alderdi hauek jorratuko ditu:

a) Ehiza eta arrantza aprobetxamenduak ireki eta hersteko datak.

diversidad ecológica y paisajística, el refugio de la fauna silvestre y que actúen como barreras naturales contraincendios.

En el diseño de esta normativa se procurará, con carácter general, que no se vea afectada una superficie superior al 5% de la parcela forestal, salvo en los casos que concurran circunstancias físicas ineludibles, como puede ser el caso de parcelas colindantes con cursos de agua.

8.– Los daños producidos sobre el terreno, cursos de agua, infraestructuras o caminos por cualquier tipo de aprovechamiento forestal deberán ser restaurados por el ejecutante del aprovechamiento en un plazo no superior a 6 meses a partir del final del aprovechamiento. El Organo responsable de la Gestión del Parque impondrá, en el procedimiento de concesión del aprovechamiento, una fianza en concepto de garantía de la citada recuperación.

*Artículo 12.*– Actividades cinegéticas y piscícolas.

A.– OBJETIVOS.

1.– La actividad cinegética que se realice en el Parque Natural de Aralar debe cumplir los siguientes objetivos:

